ECUSA
EMBAJADA DE ESPAÑA WASHINGTON, D.C.
SPAIN arts & culture
Comunidad de Madrid

# Emakume espainiarrak ESPAZIOKO LEHIAN



Proiektua: EllassonCiencia

by Quan Zhou & MECUSA


SANDRA HERNÁNDEZ, BARTZELONARRA URTEBETERAKO JOAN ZEN MIAMIRA, AITA BISITATZERA
Hemengo hezkuntza gehiago gustatzen zait. Hemen geloituko naiz!
EGUN BATEAN, AITAK NASAKO KENNEDY SPACE CENTER-ERA ERAMAN ZUEN BISITAN
Maiteminou egin naiz!
SANDRA INDAR GUZTIZ ARITU ZEN BERE HELBURUA LORTZEKO
ZERBITZARI ARITU ZEN
KARRERA IKASTEN ARI ZEN BITARTEAN...
NASA
ETA AHAL ZITUEN PRAKTIKAK HARTZEN ZITUEN:
BOEING, KENNEDY SPACE CENTER ETA, GRADUATU ONDOREN...
NASA
GAUR, 24 URTE BESTERIK EZ DITUELA, SISTEMA-INGENIARIA DA NASAKO JET PROPULSION LABORATORY-KO (JPL) PROBA-BANKUAN. ROVER PERSEVERANCE MARTEN LURRERATZEA LORTU ZUEN MARS 2020 TALDEKO KIDEA DA
SOFTWAREKO PROBA GAINDITUTA!
ROVER PERSEVERANCEREN LURREKO BIKIA (ROVER OPTIMISM) ERAIKITZEN ETA OPTIMIZATZEN ARI DA. MARTEN EGINGO DENA LURREAN PROBATZEKO ERABILTZEN DA.



TERESA NIEVES-CHINCHILLAK TEKNOLOGIAKO KLASEAK EMATEN ZITUEN ALCOBENDASKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE BATEAN DOKTORETZAKO AZKEN URTEETAN
Maite dut matematika eta fisika irakastea
EGUN BATEAN, NASAKO LANGILE BAT EZAGUTU ZUEN
Eta NASAn lan egiteko proposamen bat bidaltzen badiguzu?
Ene bada! Bai noski! Abentura berri bat
OSO PROZESU LEHIAKOR BATEN ONDOREN, LANA LORTU ETA AURRERA EGIN ZUEN, KONTRATU IRAUNKOR BAT LORTZERAINO.
TERESA ZIENTZIALARI ASTROFISIKOA DA NASA'KO GODDARD ESPAZIO-HEGALDIKO ZENTROAN. EGUZKIA IKERTZEN ARI DA.
"SOLAR ORBITER" MISIOAREN ARDURA DU. EGUZKIARI OSO HURBILETIK ARGAZKIAK EGINEZ, EGUZKI-EZTANDAK ULERTZEA DU HELBURU. HORRELA, ESTREINAKO ALDIZ IKUSI DITUZTE HAREN POLOAK.
MASA KORONALAREN EMISIOAK IKERTZEN DITU, HAU DA, ENERGIA IZUGARRIA IRRADIATZEN DUTEN EGUZKI-EZTANDAK. AURORA BOREALAK SORTU ETA SATELITEAK HONDA DITZAKE, BESTEAK BESTE.
TERESAK EREDUAK GARATZEN DITU EZTANDEN ONDORIOAK ZEIN IZANGO DIREN ETA NOIZ GERTATUKO DIREN IRAGARTZEKO.


BEGOÑAK BETIDANIK SENTITU DU ZERU, ILARGI ETA IZARREKIKO GRINA
Egunen batean, Vigotik izarretara iritsiko naiz
EMAKUME BAKARRETAKO BAT ZEN FISIKA IKASTEN ETA ASTROFISIKO GISA LAN EGITEN, BAINA EZ ZUEN ATZERA EGIN
Gaur, %25 emakumeak gara
LANKIDE GEHIENAK GIZONAK DIRA
JAMES WEBB TELESKOPIO ESPAZIALERAKO SISTEMA-INGENIARIA DA BEGOÑA, NASAKO GODDARD ESPAZIO-HEGALDIKO ZENTROAN
TELESKOPIOAREN KLON BATEKIN, SIMULAZIOAK EGITEN DITU ESPAZIOAN ZER GERTA DAITEKEEN IRAGARTZEKO
ORBITAN JARRITAKO TELESKOPIORIK HANDIENA DA. 25 URTE BEHAR IZAN ZITUZTEN ERAIKITZEKO
Pentsaezina zirudien, eta hemen nago!
TELESKOPIOAK GALAXIEN BILAKAERA ULERTU NAHI DU, ETA BESTE PLANETA BATZUETAN BIZIA DAGOEN JAKIN
BEGOÑAREN LANARI ESKER, TELESKOPIOA KALTERIK GABE ATERA ZEN JAURTIKETATIK ETA FUNTZIONATZEN JARRAITZEN DU ESPAZIOKO BALDINTZA BEREZI-BEREZIETAN
TELESKOPIOAREN GIDATZEA KOORDINATZEN DU, EZINBESTEKOA ESPAZIOA FOTOGRAFIATZEKO
NASA




LEHENENGO IZARREN EZTANDAREN ONDOREN, LURREAN BIZIA AHALBIDETU DUTEN ELEMENTUAK SORTU ZIREN;

**BERAZ, EZ AHAZTU IZAR-HAUTSEZ EGINDA ZAUDELA**